

Esteban Agirrezabal Lizarralde

*Beasain, Gipuzkoa
(1919-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Garin auzoko Erdikoetxe baserrian jaioa 1919an. Ume-umetatik baserriko lanetan laguntzen zuen eta sarri askotan eskolara joan ordez artzain edo basomutil lanetan aritzen zen. Auzo-eskolara joandakoa, eskolako urteak amaitu zituenean morroi joan zen baserri batera. Basoko lanei buruzko azalpenak eman zituen 2005ean egindako elkarrizketan, eta batez ere ikazkintzari buruzkoak.

Zintak

BEA-003

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-004

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Auzoaren inguruko kontuak

- **Erref:** BEA-003/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Auzoa nola aldatu den. Lehenago familia gehiago zeuden, eta gazte gehiago. Erdikoetxe, lau bizitzako etxea zen. Auzoko etheen zenbaketa egiten dute. 22 familia guztira.</p>

Transkripzioa

- Eta zelan gogoratzen duzu zuk, auzo hau nolakoa zen zeure ume-denboran? Asko aldatu da edo...?
- Esteban: Aldau, bai, jendez bai. Ordun gazte-jendea gehiau zan hemen. Gaur kanpoa jun da lanea ta orduan baiño gazte gutxigo dau gaur hemen.
- Joxe Inazio: Familik´e gehiao ordun. Familik...
- Esteban: Familik´e gehiao. Nik hemen [...] juxtu-juxtun ezautu nian famili bat. Gero, bestea, [Arrola] zana. Hemen bat, bi, hiru, lau famili. Erdikoetxen...
- J. I.: Lau, beste lau.
- Esteban: Bai, beno... Geo zuek etorri ziñeten, eo zuen aitte zana ta ama zana.
- Joxe Inazio: Baiño hue...
- Esteban: Haak´e ezkondu hittuun lehengo etxe zaharretik honuntza pasauta. Ta hemengo obrea eitten ni ibili nittuan hor morroi.
- Joxe Inazio: Erre ein emen zan hoi, etxe hoi.
- Esteban: E?
- Joxe Inazio: Erre ein emen zan etxe hoi.

-Esteban: Nik dakiala ez.
 -J.I.: Esaten zuen [lehenao]...
 -E: Lehenao bai, erre ein emen huan, baiño nee akordun ez, zeatik hoi geo zuenak Garin-Arretxen bizi dittuk...
 -J.I.: Bai.
 -E: ... aitte-ta, aitte zana ta...
 -J.I.: Bai.
 -E: Geo ezkontzen, ni morroi eaman nittuen hiru hillabeteako. Garotarako garaie huan ta hor obran. Ta Zaldibiko...
 -J.I.: [...] hiru, ordun? Hiru etxe al zin gure Erdikoetxen, hiru bizitza?
 -E: Lau hittuan, lau, bai.
 -J.I.: Oseake, hemen lau, beste lau hor, zortzi.
 -E: Ta Garin-Arretxen beste lau bahittun...
 -J.I.: Beste lau han´e, hamabi.
 -E: Bai.
 -J.I.: Argoiñen beste hiru...
 -E: [Apaiz-etxea].
 -J.I.: ... hamahiru.
 -E: Hamahiru. Argoiñen, honuzkaldeen hiru, ta Argoin-berrin bi, bost.
 -J.I.: Hamahiru ta bost hemezortzi.
 -E: Hemezortzi. Erlotan hiru...
 -J.I.: Hemezortzi ta hiru, hoeta bat.
 -E: Hoeta bat.
 -J.I.: Eta Etxeberrietan?
 -Esteban: Etxeberrietan hiru, uste diat izan behar zittuela. Nee akordun ez. Nee akordun bakarra haik. Baiño lehen...
 -J.I.: Zure akordue nun hasten da?
 -E: Ba, Etxeberrin bat.
 -J.I.: Hoeta bi baserri, hoeta bi famili, txikixeok o haundixeok.

2. Auzoko eskola

- **Erref:** BEA-003/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola, auzoan bertan. Esteban bertara joandakoa. Irakaslea apaiza zen. Joxe Inazioren amonaren ahizpa irakaslea izan zen apaizarekin batera.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolan nun ibilitakoa zara?
 -Esteban: Ni? Hementxe.
 - Hemen bertan?
 -E: Elizen atzen lehengon esan gendun eskola txiki hartantxe. Esan nun, ba, lehengon´e? Apaize...
 - Zeure irakaslea apaiza izan zen?
 - E: Apaize, bai. Ta [geokoan Istaar] zana zan beste bat maestrea solterea. Ta hue...
 - J.I.: Maestrea uste det zala nere izoa. Nere izoa ez, nere aitten-ta izoa izan

zeiken. Eta nere amonan ahizpa. Eta uste det zala mankoa o hola...
- E: Bai, zeoze harek´e bazian.
-J.I.: ... beso bat fallatzen zona. Baiño eskribitzen ta leitzen-ta zekiña behintzat!
- Moldatzen zen...
-J.I.: Moldatzen zana, ta ordun, ba, dotriñea ematen ta umei zeoze erakusten ta ibiltzen zala uste det.
-E: Apaize ta...
-J.I.: Apaize ta bik.
-E: Bai. Don Kandido Arregi. Hue jarri nian, ba, nik petrillen gaiñen zeharrea [...], don Kandido Arregi apaize Inixio zanan kulpaz. Harek behintzat bakarren bati han zeoze ein eo ez zekiat ta nei kriston zaplaztekoa eman zian... apaizek. Ta nik kulpaik ez. Ta “rrraa!” heldu nioan ta —mutikoa deabrua ni´re, ta— “rrraa!” petrillen gaiñen zeharreea, ta [Arbeldiko Inaxi] ta horik kendu nitxoen, bestela petrilletik behera bo(ta)tzen diat nik apaize. Nik ez nun kulparik eta! Earra ein nun! Geo negarrez etorri nitzen ni etxea.

3. Don Candido Arregi apaiza

- **Erref:** BEA-003/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Apaiza, Don Candido Arregi. Nafarra zen. Apaizaren anaiaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Nolakoa zen apaiza bera?
- E: Gaiñez, ona apaize.
- Ona?
- E: Bai. Naparra, don Kandido Arregi. Geo osaba zon solteroa, bere osaba, ta hue kitarrea jo ta eliz-zain ta...
- J.I.: Pixkat edanda...
- E: Edan ta... Bai, baten bazian pakete earra.
- J.I.: Nik ez non ezautu, baiño esaten doenez... Apaize bai ezautu non nik. Arregi hoi ezautu non nik zeatio hoi eon zan geo hemendik Arriaranen, Arriaranen egon zan...
- E: Geo Gaztelua jun huan hoi, Arriarandik Gaztelua.
- J.I.: Geo atzea honea etorri zan.
- E: Gaztelutik atzea honutza?
- J.I.: Bai. Eske ni, ni, harek bataiatu [niñun].
- E: Zeati... horren osaba, kitarrea jo ta “bren, bren” aitze hoan ta “jeup” eta zea kantau ta o(b)ispa etorri, ta hue ez zala apaiz-etxeako martxea ta hue fuera.
- J.I.: Napar hori?
- E: Napar hori ta mutil zahar hoi. Harek hala esaten zian: “A nere jainkoa! Hil behar banak hil nazak, baiño kontu gero neri min eman!”. Ta aitzenen hilda billau emen zien.

4. Estebanen garaian eskolan dena euskaraz

- **Erref:** BEA-003/006
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Estebanen garaian, apaizak dotrinaz gain, irakurtzen eta idazten ere irakasten zien, dena euskaraz. Maistrak ere dena euskaraz.

Transkripzioa

- Eta zer nolako eskolak ematen zituen apaizak?
- E: E?
- Ze erakusten zuen apaizak dotrina ala...?
- E: Dotriña harek.
- Irakurtzen eta eskribitzen...?
- E: Bai. Geo eskribitzen-ta´re bai.
- Orduan berak ematen zituen...
- E: Bai, bai. Beak dana ematen zon.
- Eta ze izaten ziren klaseak euskaraz, erdaraz, bietara...?
- E: Euskeaz, dana euskeaz. Erdeaz...
- Gutxi?
- E: Gutxi. Guk ez gendun erdeaz eze ikixi hemen.
- Ez? Eta maistrarekin ere euskeraz?
- E: E?

- Lehen esan duzuen maistrarekin ere...?
-J.I: Bai, hue´re euskeaz. Harek ez zekin erderaz; harek erderaz ez zekin.
Nere aitten izoa horrek? Harek ez zekin erderaz.
-E: Hemen dana... erderaz batez! Batez erdeaz, dana euskeaz.

5. Joxe Inazioren garaian, dotrina euskaraz, gainerakoa erdaraz

- **Erref:** BEA-003/007
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Joxe Inazioren garaian, eskola erdaraz ematen zuten; dotrina bakarrik izaten zen euskaraz.

Transkripzioa

- J.I: Zuen garaian... Klaro, oain... Akaso nei galdetuko dit gero hori...
- Esan...
-J.I: Nere garaian euskeraz hitz egitten zan bakarrik ta eakutsi erderaz.
- Erderaz eakutsi...
-J.I: Ta liburu danak, liburu danak erderaz zeren. Guk leitzen giñutzen aritmetika eta lenguaje eta... danak erderaz. Eta erderaz ez genekiun eta hala´re harekin ein behar izaten gendun. Dotrinea bakarrik euskeraz.
-E: Ba, guri barkau eitten ziguen, erdeaz eak nola ez ziguen eitten...

6. Esteban eguraldi txarrarekin bakarrik joaten zen eskolara

- **Erref:** BEA-003/008
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:14:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Estebanen garaian eskola liburua dotrina izaten zen. Eguraldi txarra zegoenean joaten zen eskolara; bestela artzain ibiltzen zen.

Transkripzioa

- Eta zuek libururik erabiltzen zenuten?
-E: Ez, euskeazkoa dana. Ta...
- Bai, euskerazko libururen bat?
-E: ... jenealen, dotriñea euskerazkoa, gure liburue hue zan.
- Lehengunean Jose Inaziok esaten zuen berak “Xabiertxo” ta liburu hauek ezagutu zituela. Zuk ez?
-E: Ez. Gureandik hareana diferentzi haundie sortu zan.
- Bai, ez? Urte gutxiko aldea izan arren...
-E: Bai, bai, diferentzi haundie. Bost urten diferentzi haundie.
- Eta gero hemen eskolan zenbat urtekin hasi...?
-E: Ni jenealen eskolaa juten nitzen egualdi txarren.
- Baserrian lanik ez zegoen...
-E: Egualdi txarren eskolaa. Egualdi ona bazan, artzai.

- Artzai ibiltzen zinen, e?
-E: Bai. Ta egualdi onen, berriz´e, lanea soroa.

7. Eskola amaitu eta morroi joan

- **Erref:** BEA-003/009
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eskola amaitu ondoren mutil asko morroi joaten ziren. Esteban morroi egon zeneko kontuak: egiten zituen lanak; etab.

Transkripzioa

- Eta zenbat urterekin hasi zinen eskolara joaten?
-E: Ez ze(k)iñat eta hoixe ez niken esango, gazteik behintzet.
- Gazterik... Eta gero hemen eskola amaitu eta zuzenean lanean hasi zinen edo...?
-E: Lanea.
- Eta orduan mutillak nora joaten ziren lanera? Baserrian bertan geratzen ziren edo...?
-E: Hoon etxea [...], hok oain daren etxea hiru hillabeteako.
-J.I: Morroe.
- Morroe?
-E: Hiru hillabeteako. Hor´e hiru hillabete ta ga(r)otan ibili nitzen, ta zuen aittona zana ta biok ordu batzuk bertan garoa ebaitzen, ta —illunduta garoa ebaitzen, illargie zeoan earra ta— ta esan nioan: “Zu, Joxe Ramon”, ta “Ze behar dezu? [Zer nahi dek, ba?]”, ta “Bihar etorri behar al deu?”, ta “Etorri beharko ez deu, ba!”, “Ordun gaur etxera jun berko deu”.
-J.I: Illundu ta gero...
-E: Ta pentsau zenbat bide zeon, e!
-J.I: Ordubeteko bidea.
-E: Ordubeteko bidea ta illunduta han, Murumendi aldean. Ta esan zian: “Jarri mahaian... Oain afarin aurretik errosarioa errezau beharko deu, aittu beharko deu”. Bazekian zer zeukean etxea etorritta. Andrea...
-J.I: Demanda ingo zion...
-E: Demanda! Enee!
-J.I: Beandu etorri zalako.
-E: Bueno! Ordun komerik!
- Orduan, mutil asko morroe joaten ziran, ez?
-E: Bai.
- Eta zein izaten zan zure lana?
-E: E?
- Zure lana bertan zein izaten zan? Morroi joan ziñaneko...
-E: Morroi. Honekon hurrena Etxeberrittan.
-J.I: Baiño lana, lana, zuk itten zendun lana...
- Ganadu-zain edo...?
-E: Ganajana ta, ganauen azpik etaa ta... Etxeberrittik goizetan astokin´e honuntza esnek ekarri ta... Geo hemengo ganajanak ein ta holaxe.

8. Basolana; egurketaria

- **Erref:** BEA-003/011
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Inguruko basoak: harizti, gaztainondo, pagadi, sagastiak. Estebanek basoan egiten zituen lanak. Pagoak trontzarekin botatzen zituzten. Pago-buruak dinamitarekin txikitzen zituzten. Egurra nora saltzen zuten.</p>

9. Egurraren beharra

- **Erref:** BEA-003/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ordizian, Garmendiak txikitzen zuen egur asko. Okindegietan egur asko behar izaten zuten. Ikatza ere lantegietan behar izaten zen.

10. Auzotik Beasainerako bidea, CAFekoek egina

- **Erref:** BEA-003/013
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Egurraren garraioa baso-jabeak egin ohi zuen. Garin auzotik, Beasainera eramaten zuten ikatza. Bidea noiz egindakoa zen. CAF-eko langileak Garingo bidea egiten lan egin zuen.

11. Urtegia

- **Erref:** BEA-003/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Urtegia noiz egindakoa. Inguru hartako baserria. Perretxiko lekuak.

12. Basomutilen lana

- **Erref:** BEA-003/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Basomutilen lana. Urrutira joan behar zutenean, bertan geratzen ziren lotan. Egun horietako batean aitonarekin gertatutakoa kontatzen du.</p>

13. Ikazkintza

- **Erref:** BEA-003/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ikazkinaren lana nolakoa zen. Txondorra nola egiten zen. Egurraren arabera denbora gehiago edo gutxiago behar izaten zuen egosteko. Pago-egurrarekin ikatz oso ona ateratzen zen; gaztainarekin egindako ikatza.

14. Bidegintza

- **Erref:** BEA-003/017
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bidegintza. 1933-34 inguruan egiten hasi zen Garinerako bidea. Lehenagoko bidea nolakoa zen; zailtasunak jendea gaixotzen zenean herrira jaisteko.

15. Erljioaren garrantzia

- **Erref:** BEA-003/019
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gurasoak oso fededunak, "beharko!". Erljioaren garrantzia. Dotrina. Goiz-meza; meza nagusia; bezperak.

16. Erregidore lanak

- **Erref:** BEA-003/026
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:48:10. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Joxe Inazioaren aita erregidorea zen, eta hark egin beharreko lanak aipatzen

ditu. Auzolanak egin behar izaten zirenean, antolatzeke ardura izaten zuen. Auzo bakoitzak bere erregidorea izaten zuen.

17. Erregidorearen hautaketa

- **Erref:** BEA-003/027
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Erregidorea nola aukeratzen zen. Herriarekin, udalarekin harremana zein eratakoa zen. Garraioak.

18. Azokak; Beasain, Ordizia...

- **Erref:** BEA-003/028
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

<p>Feria egunak: asteartetan Beasainen eta asteazkenetan Ordizian. Ordiziakoan garai batean ganadu ugari egoten zen. Astelehenetan Tolosan egoten zen feria. Ordiziara joateko joera handiagoa.</p>

19. Herrira jaisteko garraioa

- **Erref:** BEA-003/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:56:10. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko bizimodua » Baserríko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Joxe Inazio mutil koskorra zenerako automobilak bazeuden. Lehenago, astoarekin jaisten ziren herrira.</p>

20. Auzoko batek egiten zituen auzokoen enkargu guztiak herrian

- **Erref:** BEA-003/031
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:58:25. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

<p>Joxe Inazioaren ama astoarekin jaisten zen herrira. Gerora, gurdia erosi zuten. Ordiziako feriara nola joaten ziren, astean behin. Beasainera ez ziren egunero jaisten. Auzoko gizon batek egiten zituen etxe askotako errekaduak.</p>

21. Batak euskaraz, besteak erdaraz, elkarri ulertu behar

- **Erref:** BEA-003/032
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Amak ez zuen erdaraz hitzik egiten. Zertxobait ulertu, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com